

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

GETXO UDALERRIAN GIZARTE KOHESIOAREN ARLOAN DIHARDUTEN ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA 2022

SARRERA

Getxoko Udala tokiko administrazio publikoa da, herritarren zerbitzutan dagoena, eta honela egiten du bere jarduerara:

- Herritarren eta gizarte eragileen parte hartzea eta elkarreragina jasoz;
- Eguneroko bizitza eragiten dieten oinarrizko beharizanei erantzunez;
- Getxotarrei banakako eta taldeko ongizate maila hobekak lortzen laguntzen dieten bizi baldintzak ahalbidetuz.

Jarduerarako kontuan hartzen da herritarren aniztasuna eta, bereziki, gizarte-egoera, ekonomia, sexua, adina, jatorria, aniztasun funtzionala, etab. direla eta, talde kalteberena.

Gizarte Kohesioaren arloa Gizarte Zerbitzuen eta Esku-hartze Komunitarioaren unitateek osatzen dute (boluntariotza sustatzea, immigrazioa eta kulturartekotasuna, adikzioen prebentzioa, hezkuntza, garapenerako lankidetzak, berdintasuna, gaztedia eta zahartze aktiboak).

Esku-hartze komunitarioaren helburua da herritarrak, hirugarren sektorea eta erakunde sarea komunitate aktibo, inklusibo eta solidarioa egiten nahastea. Ekintza komunitarioak hurrengo ezaugarri hauek ditu:

- Parte-hartzailea da, pertsonen deialdia egin eta haiengan eragin nahi duen neurrian, ahalduz aktibo indartzeko.
- Elkarlanerako da, ekintza publikoaren eta gizarte zibilaren nahiz hirugarren sektorearen autoantolaketaren artean sinergia bilatzen duen neurrian.
- Eraldatzailea da, pertsonen inguruneetan edo haien gizarte-egituretan egiturazko aldaketak sortu nahi dituzten heinean.

Gizarte Kohesiorako arloak bultzatzen duen prozesu bat da dirulaguntza-ildoan bitartez asoziazionismoa eta boluntariotza babestea, partaidetza eta elkartasuna sustatzen laguntzeko.

Getxoko Udalaren dirulaguntza jarduerara 2020-2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago, eta berarekin *"intereseko udal-kudeaketaren eremuetan udalerriko gizarte zibil antolatuen partaidetza bultzatu, sustatu eta indartu nahi du. Hala, interes orokorrekoak badira, elkarte-sareen lana eta proiektuak diruz laguntzen ditu..."*

Jarduketa printzipio orokorrak, Plan Estrategikoaren oinarrizko elementuak eta dirulaguntzen arloan udal kudeaketa arautzen dutenak, honako hauek dira:

- a) Publikotasuna eta lehia.
- b) Objektibotasuna funts publikoan esleitzeko prozesuan, proiektuak aukeratzeko irizpideak eta horiek zenbatzeko haztapen metodoak ezarriz.
- c) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- d) Gardentasuna baliabide publikoak esleitzeko prozesuan, bai emakida prozesuan, bai emaitzak argitaratzeko prozesuan.
- e) Eraginkortasuna helburuak betetzean, dirulaguntzen jarraipen eta kontrola egiteko prozedura bat ezarriz.
- f) Efizientzia baliabide publikoak erabiltzerakoan eta ematerakoan.

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

1. artikulua: XEDEA

Oinarrien xedea da udal aurrekontuen mugak kontuan hartuta 2022an erakundeei, elkartei edo fundazioei (aurrerantzean, erakundeak) dirulaguntzak emateko arauak zehaztea. Horretarako, erakundeek nortasun juridikoa izango dute, baina ez irabazi asmorik, eta jarduerak gizarte kohesioaren arloan Getxoko udalerrian edo getxotarrentzat gauzatuak dituzte horren barruan dauden edozein sektore-eremutan:

- Gizarte eraldaketarako sentsibilizazioa eta heziketa
- Haurrak eta gazteak
- Zahartze aktiboa
- Balioetan oinarritutako heziketa
- Adikzioak prebenitzea
- Gizarte zerbitzuak

Bestela, zeharkako politiketatik jardun ahalko dute:

- Berdintasuna
- Kulturartekotasuna
- Aniztasun funtzionala
- Belaunaldi aniztasuna
- Aniztasun afektibo-sexuala
- Elkartasuna

Jarduerekin honako hauek lortu nahi dira:

- Udalerrian gizarte-kohesio handiagoa sustatzea.
- Udalerrian asoziazionismoa sustatu eta bultzatzea.
- Gizarte kohesioaren arloan programak, prestazioak eta jarduerak garatzeko gizarte-ekimena.
- Getxoko Udalaren eta gizarte erakundeen artean kooperazioa sustatzea.

2. artikulua: ARAUBIDE JURIDIKOA

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 38/2003 Lege, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra.
- 2020-2023rako Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen Dirulaguntzei buruzko Plan Estrategikoa, 2021eko abuztuaren 10eko BAOan argitaratutakoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
- 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Elkarlanari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

3. artikulua: DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679) eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetze aldera, jakinarazten du bere datuak "Erakunde laguntzailei dirulaguntzak" izeneko tratamendu-jardueraren parte izango direla.

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

Tratamendu horren arduraduna Getxoko Udala da, eta tratamenduaren xedea Getxoko Udalaren eskumeneko gizarte kohesioko politikekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea da. Bildutako datuak beharrezkoak dira Getxoko Udalari esleitutako botere publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahalko zaizkie. Datuen titularrek euren datuak kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, bai eta horien tratamenduaren aurka egin edo mugatu ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Getxoko Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus. helbide elektronikora.

4. artikulua: ERAKUNDE HARTZAILEAK

Dirulaguntzen erakunde hartzaileak hurrengo hauek beteko dituzte:

- Irabazteko asmorik ez izatea.
- Oinarri arauemaileak onesten diren egunean gutxienez urtebeteko antzintasunez dagokien erregistro publikoan erakunde gisa erregistratuta egotea.
- Getxoko erakundearen erregistroan inskribatuta egotea, erakundeek egoitza edo delegazioa udalerrian badute.
- Getxoko Udalarekin eta Ogasun Publikoarekin (Forukoa edo Estatukoa) dauden zerga betebeharrak egunean izatea, bai eta Gizarte Segurantzarekin daudenak ere.
- Gizarte kohesioaren arloan jarduerak garatzea.
- Proiektua oso-osorik Getxon gauzatzea eta proiektuko hartzaileen artean gutxienez % 50 getxotarrak izatea.

Erakundeek ezingo dute dirulaguntzen onuradun izan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan xedatutako inguruabarren batean badaude. Halaber, ezingo dute parte hartu sexuarengatiko diskriminazioa dela eta administrazio zehapena edo penala betetzen ari diren erakundeek edo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen babesean ebazpen honetan aurrez ikusitako laguntzak eskuratzeko debekua dutenek.

5. artikulua: KREDITUA

Dirulaguntzen deialdi honetarako **gehieneko kreditu** eskuragarria **226.720 eurokoa** da, eta 02000 23100 4810000 partidari egozten zaio, dirulaguntza-ildo desberdinetan banatzeko.

Eskakizunak betetzen dituzten erakundeek **eskaera bakarra** aurkeztu ahalko dute **1. ildoan** eta **proiektu bakarra 2. ildoan**.

5.1 Erakunde eta eskaera bakoitzeko gehieneko zenbatekoa:

- Oinarriek ildo eta/edo azpiildo bakoitzeko muga zehazten dute.
- **Erakunde bakoitzeko gehienez 11.000 euro** emango dira, aurkezteko eskubidea duten ildo guztiak batu ondoren.
- Dirulaguntza-ildo bakoitzean hona hemen **eman daitekeen gehieneko zenbatekoa: % 75 1. ildoan** eta programaren/proiektuaren **% 100 2. ildoan. Kasu guztietan % 100 gauzatu eta justifikatu beharko da.**

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

- Berriazko oinarri arauemailetako irizpideak aplikatutakoan, edozein dirulaguntza-ildotan kreditua geldituz gero, beste ildo batzuen beharrak estaltzeko erabili ahal izango da.

Hurrengo taulak kreditu eskuragarria, dirulaguntza-ildo bakoitzaren mugak eta finantzaketa muga laburtzen ditu:

Ildoa/ Línea	Aurreikusitako kreditua/ Crédito previsto	Eskari eta entitate bakoitzeko gehienezkoa emakida/ Concesión máxima por entidad y solicitud	Emakida Erregimena/ Régimen Concesión	Finantzaketa muga/ Límite financiación
1	111.720 €	3.000 € > 3 urteko erakundeak/ entidades > 3 años 1.000 € < 3 urteko erakundeak/ entidades < 3 años	Hainbanaketa/ Prorrata	Aurkeztutako gastuen % 75 75% de los gastos presentados
2	2A: 105.000 €	9.000 € erakunde getxotarrak/ entidades de Getxo	Norgehiagoka/ concurrencia competitiva	Aurkeztutako proiektuen % 100 100% del proyecto presentado
	2B: 10.000 €	1.000 € erakunde ez getxotarrak entidades de fuera de Getxo	Hainbanaketa/ Prorrata	
GUZTIRA TOTAL	226.720 €			

6. artikulua: DIRULAGUNTZA-ILDOAK

6.1: 1. DIRULAGUNTZA-ILDOA: GETXOKO ERAKUNDEAK MANTENTZEA, FUNTZIONATZEA ETA INDARTZEA

6.1.1- Xedea:

Ildo honek asoziazionismoa sustatu eta indartu nahi du, gizarte kohesioaren arloarekin lotutako erakundearen sare zabala bultzatzeaz gain.

Dirulaguntza-ildo hau hurrengo erakunde hauek eskura dezakete:

- Sozietatearen egoitza edo delegazioa Getxon dutenek.
- Getxoko Udalaren erregistroan inskribatuta daudenek.

Ildo honetan diruz lagunduko dira ohiz mantentzeko eta funtzionatzeko erakundearen gastuak, baldin eta gehieneko zenbatekora iristen ez badira.

Erakundea ohiz mantentzea:

- Langileak (nomina eta gizarte segurantzak, aseguruak, dietak...).
- Gastu arruntak (erakundearen egoitza edo delegazioari dagokion lokalaren alokairua, garbiketa, hornidurak...).

Funtzionatzea, indartzea eta erakundearen jarduerak:

Atal honetan funtzionatzeko, indartzeko eta jardueretarako gastuak sar daitezke (proiektutat hartzeko garrantzi nahikorik ez duen ekintza/jarduera oro).

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

- Erakundea sustatzeko informazioa (urteko memoriak, liburuxkak, kartelak, jardunaldiak, webguneak edo sare sozialak) eta dibulgazioa (publizitatea eta propaganda).
- Boluntarioak trebatu eta lortzea (ikastaroak, mintegiak...).
- Erakundeak hobe kudeatzeari edo bazkideen ala hartzaileen gaikuntza areagotzeari lotutakoak: erakundearen hausnarketa estrategikoak; kudeaketa, berdintasun eta/edo komunikazio planak; esku hartzeko berariazko materialak eta baliabideak egitea.
- Erakundearen arlorako edo bazkideentzat esku hartzeko berariazko ekintzak/jarduerak.

6.1.2- Ildo honetarako **kreditua: 111.720 euro**

6.1.3- Emakidaren erregimena: **hainbanaketa**

6.1.4- Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa:

3.000 euro, erakundeek 3 urte edo hortik gora badaramatzate erakunde gisa erregistratuta eta azkeneko 3 urte hauetan Gizarte Kohesiorako arloko edozein zerbitzutik finantzaketa jaso badute.

2.500 euro, erakundea kudeatzeko udal-lokalen bat esleituta duten erakundeentzat. Gehienez **2.000 euro**, 2 A ildoan 9.000 euro lortzen dituzten erakundeentzat.

1.000 euro, erakundeek 3 urtetik behera badaramatzate erakunde gisa erregistratuta eta azkeneko 3 urte hauetan Gizarte Kohesiorako arloko edozein zerbitzutik finantzaketarik jaso ez badute.

750 euro, erakundea kudeatzeko udal-lokalen bat esleituta duten erakundeentzat.

Gehienez aurkeztutako gastu guztiaren **% 75 emango da**, baina % 100 gauzatu eta justifikatu beharko da.

6.2: 2. DIRULAGUNTZA-ILDOA: INTERESEKO PROIEKTUAK GIZARTE KOHESIOAREN ARLOAN

6.2.1- Xedea:

Ildo honen asmoa da, oinarri hauen xedeak definitutakoari jarraikiz, gizarte kohesioaren arloan intereseko proiektuak babestu eta sustatzea.

Dirulaguntza-ildo honetan honako hauek sartzen dira:

- Garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako heziketaren gainean sentsibilizatzeko jarduerak.
- Ikuspegi feminista argia duten jarduerak edo proiektua, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta indarkeria matxista errotik atera nahi dutenak ere.
- Herritar anitzentzat harreraren, aukera-berdintasunaren eta/edo topaketa-guneak sortzearen bitartez kulturartekotasuna bultzatzen duten jarduerak.
- Heziketa-aisialdiko eta/edo gazteen intereseko jarduerak.
- Pertsonen autonomia, babesa eta gizarteratzea bultzatzen duten jarduerak.
- Gizarte zerbitzuen eta udalaren edo udalaz gaindiko beste gizarte politika batzuen integrazio intersektional berria eraikitzea sustatzen duten jarduerak eta/edo

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

bestelako arlokako eremu unibertsalak, hala nola zahartze aktiboa eta adikzioen prebentzioa, kontuan hartzen dituztenak.

- Arretaren, partaidetza sustatzearen, autonomiaren eta/edo sentsibilizazioaren ikuspegitik aniztasun funtzionalari aurre egiteko jarduerak.

Oinarri arauemaile hauen xedearekin bat ez datozen jarduerak, ez eta beste erakunde publikoekin edo bestelako udal arloekin lehian dihardutenak ere ez dira diruz lagunduko.

Ildo honetan ondorengo gastu hauek lagunduko dira diruz:

- Zuzeneko gastuak (proiektua garatzeko materialak, langileen gastuak, kanpoko kontratazioak, proiektua gauzatzeko bidaiak eta egonaldiak, publizitatea eta itzulpen-gastuak).
- Zeharkako gastuak, gehienez Getxoko Udalari eskatutako dirulaguntzaren balioaren % 5era arte.

2. ildoko proiektuak lortu nahi dituzten erakundeek berrmatuko dute proiektua oso-oso Getxon gauzaten dela eta/edo gutxienez proiektuaren hartzaileen % 50 getxotarrak direla.

Gehienez aurkeztutako proiektuaren % 100 eskatu ahal izango da.

6.2.2- Azpiildoak:

2. A Erakundearen egoitza edo delegazioa Getxon dute eta Getxoko erakundearen erregistroan inskribatuta daude

Ildo honetarako **kreditua: 105.000 euro**

Emakidaren erregimena norgehiagoka da, 13. artikuluko balioztapen-irizpideak aplikatu ostean.

Dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskaerak alderatuko dira, ondoren xedatzen diren balioztapen-irizpideekin bat, horien artean lehentasuneko ordena zehaztu ahal izateko. Kreditu eskuragarriaren barruan deialdian ezartzen den mugarekin balioztapen handiena lortu duten erakundeei baino ez zaizkie esleituko.

Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 9.000 euro

2. B Erakundearen egoitza edo delegazioa Bizkaiko beste udalerrri batean dutenak

Ildo honetarako **kreditua: 10.000 euro**

Emakidaren erregimena hainbanaketa da.

Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 1.000 euro

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

7. artikulua: EMAKIDA-PROZEDURA

Dirulaguntza **aurreratuta ordainduko da**. Dirulaguntzari atxikitako jarduketak gauzatzeko finantzaketa izango da.

Gehiegi finantzatzea:

Dirulaguntza hauek erakunde publiko edo pribatuek xede bererako emandako beste edozeinekin bateragarriak dira, baina inola ere ez da gehiegizko finantzaketa izango, hau da, beste erakunde batzuek emandakoekin batu ondoren dirulaguntzaren zenbateko guztiak ez du jardueraren kostu osoa gaindituko.

Dirulaguntzak batzean gehiegizko finantzaketa badago, erakunde onuradunak Getxoko Udalari itzuli beharko dio finantzaketa guztiaren gainean dagokion zenbatekoaren proportzioa.

Ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko finkatutako azken egunetik aurrera zenbatuta. Ebazpena emateko epea amaitzean ez bada berriazko ebazpenik eman, dirulaguntzaren eskaera ez da onartutzat joko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25. artikulua xedatzen duenerako.

Eskaerak birformulatzea:

Eskaerak birformulatuko dira **eman beharreko zenbatekoa eskatutako proiektuaren zenbatekoaren % 75etik behera gelditu denean eta proiektuaren finantzazioa bermatu gabe dagoenean**.

Organo instruktoreak erakundeari jakinaraziko dio 10 egun baliadunetan proiektua beste aurrekontu batekin berriz planteatu beharko duela edo dirulaguntzari uko egin beharko diola. Berriaz erantzuten ez bada, organo instruktoreak eskaera ukatutzat joko du.

8. artikulua: ORGANO INSTRUKTOREA, KIDE ANITZEKO ORGANOA ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Laguntzak emateko **organo instruktorea** Gizarte Kohesiorako arloko arduradunak eta arloko teknikariek osatuko dute.

Organo instruktoreak txosten teknikoa emango du, eskatutako jardueraren interesa ziurtatzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta oinarri arauemaile hauek xedatutakoaren arabera.

Erabaki proposamena kide anitzeko organoak Tokiko Gobernu Batzarrari igorriko dio, eta hura honako hauek osatuko dute:

PRESIDENTEA: Alkatea.

KIDEAK:

- Idazkaritza Nagusiko eta Herritarren Segurtasuneko zinegotzia.
- Ekonomia Sustapeneko, Hirigintza Plangintza, Kudeaketa eta Diziplinako eta Udal Eraikinetako zinegotzia.
- Ingurumeneko Hiri Zerbitzuko eta Ingurumeneko Kalitateko zinegotzia.
- Idazkari nagusia.
- Kontu-hartzaile nagusia.

IDAZKARITZA NAGUSIA:

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

- Idazkaritza Nagusiko teknikaria.

Dirulaguntza hauek ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

9. artikulua: AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Herritarrak zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera, eskaerak Administrazio Elektronikoen Bulegoaren bidez aurkeztuko dira hurrengo helbide honetan: www.getxo.eus

Oinarriak nahiz eskaera inprimakiak www.getxo.eus webgunean kontsulta daitezke.

10. artikulua: BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

- Eskabide normalizatua (I. eranskina).**
- Eskaera egingo duen ordezkariaren NANaren/AIZaren fotokopia.
- Erakundeko IFKren fotokopia.
- Erakundeko estatutuen fotokopia.
- EJko elkartearen erregistroan, udal-erregistroan edo dagokion erregistroan inskripzio-ziurtagiriaren fotokopia.
- Eskaerak **3.000 euro gainditzen badituzte**, Bizkaiko Foru Ogasunaren edo beste edozein **Ogasun** Publikoaren (Forukoa edo Estatukoa) **ziurtagiria**, eta **Gizarte Segurantzarena**, non adierazten den Bizkaiko Foru Ogasunarekin edo beste edozein Ogasun Publikorekin (Forukoa ala Estatukoa) eta Gizarte Segurantzarekin zerga-eskakizunak eguneratuta daudela. Ziurtagiria ofizioz eskatuko da erakunde eskatzaileak kontra egiten ez badu.
- Udalak ofizioz egiaztatuko du erakunde eskatzaileak zerga-zorrik duen ala ez.
1. ildoan, **erakundeari buruzko datuak (II. eranskina).**
2. ildoan, **erakundearen proiektua (III. eranskina).**
Proiektua beren-beregi III. eranskinetako formatuan entregatuko da eta ez ditu 30 orrialde baino gehiago izango (A4, alde batetik idatzita, 1,5eko lerroartea eta Arial 12 letra). Ez dira irakurriko ez ebaluatuko luzera hori gainditzen duten orriak.
- Udalak, kasu zehatza kontuan hartuta, erakunde eskatzaileari edozein dokumentazio osagarri eskatu ahalko dio.

Udalak erakundeei eskatu aurreko bi urteetan antzeko dirulaguntza eman badie, ez dituzte berriz dokumentuak aurkeztu behar, aldaketarik ez badute, baina eskaeran berriaz adieraziko da inguruabar hori.

11. artikulua: DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA

Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen argitaratuko dira, Sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikulua betez.

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

12. artikulua: ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen erakunde onuradunek hurrengo betebeharrak izango dituzte:

- Dirulaguntza emandako helburura bideratzea.
- Proiektua edo programa gauzatzeko ekar ditzakeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
- Dirulaguntzaren programa ez aldatzea, Gizarte Kohesiorako arloak aurretiaz baimentzen ez badu.
- Dirulaguntza aplikatzeari buruz Gizarte Kohesiorako arloari egokiak iruditzen zaizkion egiaztapen eta jarraipen jarduketak erraztea.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko, beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu direla jakinaraztea ezagutu bezain laster eta, nolahi ere, funts bakoitza non erabili den justifikatu baino lehen.
- Dirulaguntza justifikatzea eta funtsen justifikazio-dokumentuak 4 urtez gordetzea.
- Getxoko Udalarekin eta Ogasun Publikoarekin (Forukoa edo Estatukoa) zerga betebeharrak egunean izatea, bai eta Gizarte Segurantzarekin daudenak ere.
- Proiektuari, programari edo jarduerari buruzko publizitatean eta komunikazio-ekitaldietan Getxoko Udalaren lankidetzat idatziz jasoa uztea (laguntzailearen epigrafepean logotipoa erabiliko da).
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkuntza inklusiboa, ez-sexista eta diskriminaziorik gabekoa erabiltzea.
- Dokumentazio eta publizitate orotan emakumeen edozein diskriminaziozko irudiren edo estereotipo sexisten eta/edo arrazisten erabilera saihestea eta berdintasun eta kulturartekotasun balioak dituen irudia sustatzea.
- Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan hizkuntzaren normalizazio-irizpideak aplikatzea, dirulaguntzarekin zerikusia duten kartel, publizitate eta komunikazio guztiak elebidunak izateko.

13. artikulua: DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Dirulaguntza Administrazio Elektronikoaren Bulegoaren bidez justifikatuko da hurrengo helbide honetan: www.getxo.eus.

1. ildoan, diruz lagundutako gastuak, jarduerak/proiektuak **2022ko abenduaren 31ra arte egingo dira**. Justifikazioak beranduenez **2023ko otsailaren 28an** aurkeztuko dira. Horixe izango da emateko azken eguna.

2. ildoan, dirulaguntza emakidaren ebazpenetik gehienez **12 hilabetetan gauzatuko da**, eta gehienez **hilabeteren buruan justifikatuko da**, jarduera amaitzen denetik zenbatuta.

Dirulaguntza-ildo guztietan aurkeztu den gastuaren **% 100 justifikatu beharko da**.

Hurrengo dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- 1. ildoan**, justifikazio-memoria **IV. eranskinaren** arabera; ez dira eranskinean aipatzen diren gastuen justifikazio-dokumentu originalak aurkeztuko.
- 2. ildoan**, justifikazio-memoria **V. eranskinaren** arabera; ez dira eranskinean aipatzen diren gastuen justifikazio-dokumentu originalak aurkeztuko.
- Liburuxka, kartel, liburu, bideo, euskarri digital (cd, dvd, pendrive...) bakoitzaren ale bana, diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia dela bide editatu edo argitaratu badira.

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

Justifikazio-dokumentu originalak gorde beharko dira, Getxoko Udalak erakunde hauei egokitzat jotzen dituen justifikazio dokumentuak eska baitiezazkieke, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela argi gelditzeko.

Justifikazio kontuan aipatu gastuen frogagiri bezala onartuko dira merkataritzaren trafiko juridikoan baliozkoak diren dokumentuak, beraz, erosketa tiketak baztertuak geldituko dira. Erakundeek 4/2013 FORU DEKRETUAK, urtarrilaren 22koak, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Arautegia onartzen duenak (2013ko urtarrilaren 29ko BAO), xedatutakoa bete beharko dute fakturen eta faktura erraztuaren edukiari dagokionez (4/2003 Foru Dekretuaren 6. eta 7. artikulua).

Jarduera hori beste erakunde publiko edo pribaturen batek emandako beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin batera finantzatu bada, justifikazioaren zati gisa egiaztatu beharko da funts horien jatorria zein den eta nola aplikatuko zaien dirulaguntzaren xede diren jardueri.

Ez bada diruz lagundutako proiektuaren justifikazioa adierazitako epean aurkezten, emandako dirulaguntzaren itzultzeko prozedura izapidetuko da.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 42. artikulua betez, itzultzeko prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du.

Erakunde onuradunak jaso duen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahalko du borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, erakundeari jakinaraziko zaio, ordainketa egiteko modua eta epea adierazita.

Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua betez; horren bidez, onetsi zen Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia.

14. artikulua: BALIOZTAPEN-IRIZPIDEAK

Gehienez 100 puntu emango dira. Balioztapen-irizpideen arabera, proiektua gutxienez 50 puntura iritsiko da, eta horietatik 7 puntu gutxienez zeharkakotasunean eskuratuko dira.

Balioztapen-irizpideak

1. Proiektuaren kalitate teknikoa: guztira 40 puntu

- Helburuak, jarduerak eta emaitzak bat etortzea (gehienez 12 puntu)
- Proiektua argia eta zehatza izatea (gehienez 3 puntu)
- Proiektuaren metodologia (gehienez 8 puntu)
 - Hartzaileekiko eta testuinguruarekiko egokitasuna (gehienez 3 puntu)
 - Bitarteko eta eske teknikoak (langileak, materialak) (gehienez puntu 3)
 - IKTak sartzea (gehienez 2 puntu)
- Jarraipen-sistema eta adierazleak sartzea (gehienez 6 puntu)
- Gizarte Kohesiorako arloarekin komunikazio- eta koordinazio-sistema (gehienez 3 puntu)
- Berrikuntza. Jarduera berritzaileak dirulaguntzaren ildo honetan xedea lortzen laguntzeko (gehienez 6 puntu)
- Euskara erabiltzea (gehienez 5 puntu)
 - Jardueren % 40 euskaraz egiteko proposatzea (4 puntu)
 - Euskaraz jardueraren bat gara dadin proposatzea (2 puntu)

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

- Proiektua euskaraz edo bi hizkuntzatan aurkeztea (1 puntu)

2. Bideragarritasuna: guztira 16 puntu

- Beste erakunde batzuekin batera finantzatzea edo autofinantzatzea (gehienez 4 puntu)
 - % 10-25 bitartean: 2 puntu
 - % 26-39 bitartean: 3 puntu
 - % 40 edo gehiago: 4 puntu
- Erakunde-bideragarritasuna (2 puntu)
Proiektua gauzatzeko orduan erakunde adierazgarri batek parte hartzea
- Iraunkortasuna (gehienez 3 puntu)
Hartzaileekin lana etorkizunean mantentzeko proposatutako neurriak.
- Aurreko beste esperientzia edo azterketa batzuekin alderatzea (gehienez 3 puntu)
- Finantza-bideragarritasuna: aurkeztutako aurrekontuan partidak bereiztea, proformako fakturak edo aurrekontuak sartzeari (gehienez 4 puntu).

3. Hartzaileak: guztira 6 puntu

- Proiektuak edo jarduerak aurrez ikusten dituzten onuradunen kopurua (gehienez 4 puntu)
 - o 60 pertsona baino gehiago (4 puntu)
 - o 30 eta 60 pertsona bitartean (3 puntu)
 - o 10 eta 29 pertsona bitartean (1 puntu)
- Proiektua garatzean erreferentziarako erakundearen partaidetza bermatua edo hartzaileen interesa (gehienez 2 puntu)

4. Ibilbidea eta lana sarean: guztira 10 puntu

- Erakundeak azken 5 urteetan Getxon proiektu bat edo jarduerak garatu ditu honako eremuren batean: garapenerako lankidetzak, berdintasuna, immigrazioa eta kulturartekotasuna, gaztedia edo gizarte zerbitzuak (gehienez 3 puntu)
- Proiektua 2 edo erakunde gehiagok batera garatzen dute (gehienez 4 puntu)
- Erakundeak azkeneko 2 urteetan udalerriko sareetan, foroetan edo kontseiluetan parte hartu du (gehienez 3 puntu)

5. Zeharkakotasuna: guztira 28 puntu

- Generoaren ikuspegia sartzeko: (gehienez puntu 10)
 - o Sexuaren/generoaren aldagaia proiektuaren fase guztietan sistematikoki sartzeko da: diagnostikoa, diseinua, plangintza, exekuzioa, jarraipena eta ebaluazioa.
 - o Ikuspegi intersektionala aintzat hartzen du, eta zenbait kategoria analisietara gehitzen ditu, hala nola adina, sexu-orientazioa eta genero-nortasuna, etnia, jatorria, migratu/errefuxiatu izatea, klase soziala, aniztasun funtzionala.
 - o Esku hartu nahi duen errealitatea aztertzen du, eta errealitate hori gizonentzat eta emakumeentzat nola den desberdina hautematen du.
 - o Beharren arabera emakumeentzat eta gizonentzat. berariazko helburuak zehazten ditu
 - o Ekintza positiboko neurriak kontutan hartzen dira emakumeek proiektuan parte hartu ahal izateko.

2022ko DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA BASES Y CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES 2022

- Proiektua garatuko duen lantaldeak berariazko trebakuntza du deialdi honen xede diren zeharkako politikaren eta eremuren batean (gehenez puntu 3)
 - o Eremu batean trebakuntza espezializatua (1 puntu)
 - o 2 eremutan trebakuntza espezializatua (2 puntu)
 - o 3 eremutan edo gehiagotan trebakuntza espezializatua (3 puntu)

- Proiektuaren planteamenduak zeharkakotasuna txertatzeko funtsezko alderdiak biltzen ditu: (gehenez puntu 5)
 - o Udalerriko aniztasuna aintzat hartzen du, eta errealitate horretatik abiatuta berariazko neurriak proposatzen ditu (analisiaren, diseinuaren, exekuzioaren edo ebaluazioaren faseetan).
 - o Estereotipo sexistak, estereotipo negatiboak eta ekintzaren hartzaileenganako aurreiritziak deuseztatzeko estrategiak garatzen ditu.
 - o Kontziliazio-neurriak eta irisgarritasun-bermeak kontuan hartzen ditu hartzaileen partaidetza bultzatzeko.
 - o Rolak eta zereginak ekitatez banatzea sustatzen du, rol tradizionalak hausten ditu eta/edo erantzunkidetasuna sustatzen du.
 - o Tokiko erantzunak planteatzen ditu desberdinkeria globalen kausetan eragiten laguntzeko.

- Proiektuak/jarduerak eskuratu nahi dituen emaitzak: (gehenez puntu 10)
 - o Hartzaile kalteberak babesteko ekintzak sustatzen ditu.
 - o Desberdinkeria sortzen duten egoerak prebenitzeko lanean aritzen da.
 - o Hartzaileen autonomia pertsonala bultzatzen du.
 - o Ekintzaren talde hartzaileen partaidetza eta inplikazio soziopolitikoak eta/edo asoziazionismoa sustatzen du.
 - o Getxoko herritarrak sentsibilizatzen laguntzen du hurrengo arlo hauetan: berdintasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa, hezikidetzak, harrera, kooperazioa, giza eskubideak, bakerako heziketa eta/edo kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza, besteak beste.
 - o Emakumeak ahalduzko banako eta taldeko prozesuak sustatzen laguntzen du.
 - o Errealitate anitzen arteko elkarrekintza positiboa eta topaketa-guneak bultzatzen ditu.
 - o Proposatutako ekintzen bitartez Getxo udalerrian elkartasunaren balioa sustatzen du.
 - o 2030 Agendak dituen garapen jasangarrirako helburuak lortzen laguntzen du.
 - o Berdintasun-helburuak lortzeari lotutako ebaluazio-adierazleak ditu.